

GI-20 errepidea errei batera murriztuko da Irungo noranzkoan, hilaren 23an eta 24an, Polloe eta Intxaurrondo tunelen artean

Marrutxipiko lotuneko obren barruan, aglomeratu eta pintura lanak egingo dira tarte horretan.

Marrutxipiko lotunea egiteko lanak direla-eta, GI-20 Donostiako saihesbidearen Irungo noranzkoko galtzada errei bakarrera estutu beharko da, 6,600 (Polloeko tunela) eta 6,000 (Intxaurrondoko tunela) kilometro puntuen artean. Gaur egun, zati horretako zirkulazioa plataformaren eskuinetik desbideratutako 2 erreietatik igarotzen da, kontrako galtzadaren bypassa ahalbidetzeko. Kontrako galtzadako bypassa kendu ondoren, obrekin jarraitzeko eta zirkulazioa behin betiko galtzadatik lehengoratzeko, abuztuaren 23an eta 24an bi tunelen arteko zatian aglomeratze eta pintatze-lanak egingo dira, eta horretarako, beharrezkoa izango da gaur egun egokitutako 2 erreiak errei bakarrera murriztea.

Baldintza meteorologikoak onak badira, lan horiek 2024ko abuztuaren 23ko 08:00etatik (ostirala) abuztuaren 24ko 24:00etara (larunbata) egingo dira. Lan horiek amaitutakoan, Marrutxipira irteteko bideadarra oraindik martxan jarriko ez den arren, GI-20 errepideko zirkulazioa lehengoratuko da, jatorrizko galtzadan bi errei jarrita, eta 7,500 KPko gaur egungo erreiaren itxiera kenduko da (La Salle ikastetxearen parean). Lan horiek ez dute eraginik izango Bilboko noranzkoko zirkulazioan. Jarduketa eremua 8.3-IC «Obren seinaleztapena» arauaren arabera seinaleztatuko da.

Urte amaierarako aurreikusita

Hirira GI-20 errepidetik sartzeko lotune berria eraikitzeko obrak 2022ko maiatzean hasi ziren, eta 12.831.035 milioi euroko aurrekontua eta 30 hilabeteko exekuzio-epea dute. Dagoeneko egin dira saneamendu- eta birgaitze-lanak inguruko ekipamenduetan, eta lur-mugimendu guztiak egin dira, lotura berria osatzen duten 9 eustormak eta beheko 2 pasabideak eraikita. Oinezkoentzako errepide gaineko pasabide berria ere amaitu da.

Donostia, 2024ko abuztuaren 21ean.

La GI-20 se reducirá a un carril en sentido Irun los días 23 y 24 entre los túneles de Polloe e Intxaurrondo

Dentro de las obras del enlace de Marrutxipi, se realizarán los trabajos de aglomerado y pintura en este tramo

Con motivo de las obras de construcción del enlace de Marrutxipi será necesaria la reducción a un carril de la calzada de la GI-20 (variante de San Sebastián), sentido Irun, entre sus puntos kilométricos 6,600 (túnel de Polloe) y 6,000 (túnel de Intxaurrondo). Actualmente, el tráfico en este tramo discurre con 2 carriles desviados por la derecha de la plataforma, para permitir el bypass de la calzada contraria. Retirado el bypass de la calzada contraria, para la continuación de las obras y restituir el tráfico por la calzada definitiva, durante los próximos días 23 y 24 de agosto se llevarán a cabo los trabajos de aglomerado y pintura entre ambos túneles, para lo cual será necesario reducir a un único carril los 2 carriles habilitados en la actualidad.

Siempre y cuando las condiciones meteorológicas sean favorables, estos trabajos se llevarán a cabo entre las 08:00 horas del viernes 23 y las 24:00 horas del sábado 24 de agosto de 2024. Una vez finalicen estos trabajos, aunque aún no se pondrá en servicio el ramal de salida a Marrutxipi, se restituirá el tráfico de la GI-20 con 2 carriles por la calzada original, eliminando el cierre de carril actual del PK 7,500 (frente al colegio La Salle). El tráfico en sentido Bilbao no se verá afectado por estos trabajos. Se señalizará la zona de actuación conforme a la Norma 8.3-IC, "Señalización de obras".

Previsto para fin de año

Las obras de construcción del nuevo enlace de acceso a la ciudad por la GI-20 comenzaron en mayo de 2022 y cuentan con un presupuesto de 12.831.035 millones de euros y un plazo de ejecución de 30 meses. Ya se han llevado a cabo las obras de saneamiento y rehabilitación de los equipamientos de la zona y se han realizado todos los movimientos de tierras, con la construcción de los 9 muros de contención y los 2 pasos inferiores que completan el nuevo enlace. También se ha finalizado la nueva pasarela para peatones sobre la carretera.

Donostia, 21 de agosto de 2024.